

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUKO EREDU USTELA
2. NAFARROAKO GOBERNUAK AURREKONTUETAN ETA FISKALITATEAN EZ DOA ALDAKETAREN BIDETIK
3. GIPUZKOAKO ALDUNDIA ENPRESARIOEN ZERBITZURA ETA LANGILE-KLASEAREN AURKA JARRI DA
4. ZERGAK ETA BARNE-ERAGIKETAK TRASNAZIONALETAN
5. POBREZIA ETA PREKARITATEA GIZARTEAN ETA LAN MUNDUAN
6. ESTATU ZORREN BERREGITURAKETA
7. TTP-AREN ONDOREN TTIP-A?
8. ATE BIRAKARIAK, ORAINGOAN BARCINA
9. PROPOSAMENA: ALTERNATIBEN HERRIA

1. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUKO EREDU USTELA

Ikusi nahi izan ez duenak soilik ez du ikusi Nafarroan formakuntzarako diruaren helburu nagusia zein den, UGT, CCOO eta CEN finantzatzea. Diru publikoa horretarako erabili izan dela, eta erabiltzen dela esatea ez da ezer berria esatea.

Horretarako arrazoiak ere garbiak dira, alde batetik erakunde hauen (eta gehien bat bi sindikatu hauen) konplizitatea erostea bake soziala bermatzeko. Eta bestetik, aurkako eredia defendatzen dugun ELAren (eta baita LABen) aurka egiteko abantailak izateko UGTk eta CCOOek.

Orain arte aipatutakoan gauza berririk ez. Berritasuna estatutik ailegatutako prestakuntza araudiaren aldaketak ekarri du. Izan ere, araudi aldaketa hori dela eta, prestakuntzarako dirua hemendik aurrera konkurrentzia irekian esleitu beharko da, hau da, edozein erakunde eta enpresak lehiatu ahal izateko moduan, UGT, CCOO eta CENen monopolioarekin bukatuz.

Hau dela eta, Nafarroako Gobernuak prestakuntzarako diru partida ustu eta diru hori hiru erakunde hauekin hitzarmenak egitera bideratu du. Hau da, prestakuntzako dirua kendu eta zuzenean UGT, CCOO eta CEN erakundeei banatu.

Hitzarmen hauek aztertuz, eredu ustel honen zainak norainokoak diren ikus daiteke: sindikatu hauetako eta patronaleko beraien langile eta liberatuen soldatak finantzatzeko, sindikatu hauek eta patronalak zuzenean diru publikoa jasotzen dute (2015 urtean 120

pertsonak gutxi gora behera), erakunde hauen eguneroko gastuak diru publikotik ordaintzen dira (telefonoa, gasa, argia...), bi sindikatu hauek langileak aholkatzeagatik, enpresak bisitatzeagatik, informazioa emateagatik eta abar jasotzen dute dirua (hau da, edozein sindikatuk egiten duen lanagatik), enpresetako hitzarmenatarako plataformetan berdintasun klausulak jartzeagatik dirua jasotzen dute (diru publikorik jaso gabe ez al lukete horrelakorik jarriko?), eta abar luze bat.

2015ean hitzarmen hauetara bideratutako dirutza 10 milioi euro baino gehiagokoa da.

ELAk askotan salatu izan du hau ez dela langileok behar dugun prestakuntzarako eredia, ELAk eredu demokratiko, garden eta publiko baten alde egiten du, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ez du betetzen hiru baldintza horietako bat bera ere.

Egin beharreko galdera ondorengoa da, bere burua "aldaketaren Gobernu" deritzon horrek eredu ustel hau aldatzeko borondate politikorik bai al du?

2. NAFARROAKO GOBERNUAK AURREKONTUETAN ETA FISKALITATEAN EZ DOA ALDAKETAREN BIDETIK

Nafarroan aldaketa soziala izateko beharrezkoa da aurrekontu politika erabat aldatzea, gizartea erabat baztertua izan duen orain arteko politika eskuindarrarekin bukatzeko.

Baina orain arte Nafarroako Gobernu berriak hartutako erabakiak ez doaz aldaketaren

bidetik. Duela egun gutxi Nafarroako Gobernuak 2016rako gastu-muga zein izango den argitu zuen, 3.478 milioi eurotako, 2015ekoa baino 109 milioi handiagoa (% 3,2).

Dena den, hau argitaratu eta gero Ayerdi Ekonomia Kontseilariak onartu du 2015eko gastu erreala baino baxuagoa izango dela 2016ko gastu-muga, beraz UPNren gobernuak hainbatetan eginiko eta horrenbeste gaitzestutako murrizketekin jarraituko duela Gobernu berriak dirudi.

Gobernuak berak esan zuen moduan, gastu-muga honek berebiziko garrantzia dauka, honek 2016ko aurrekontuen gastua baldintzatzen baitu. Hortaz, aurreko urteetako ildo beretik jota, ezin gastua igo eta ezin aurrekontu politikan aldaketarik eman.

Bistakoa da, beraz, Nafarroako Gobernuak 2016an UPNren Gobernuak ezarri izan dituen aurrekontuen jarraipena egingo duela. Era honetan, azken urteetan ezarritako ajustek ezartzen jarraituko beharko du, eta murrizketa gehiago egiten jarraitu.

Politika sozialak, eta benetako aldaketa soziala, egin ahal izateko beharrezkoa da aurrekontuaren igoera garrantzitsua izatea gogoratu behar dugu, adibidez, Nafarroako osasun publikoko eta hezkuntza publikoko gastua inguruko herrialdeetako baino askoz txikiagoa dela eta osasuan eta hezkuntzan Nafarroako Gobernuak aurrekontua 2015ean 2010ekoa baino 192,4 milioi euro txikiagoa izan dela.

Beste alde batetik, Nafarroako Gobernuak Madrilan ezarritako defizitaren muga ontzat ematen jarraitzen du, aurreko Gobernuak bezala, Nafarroak duen aurrekontuak egiteko gaitasunari uko eginez eta Rajoy-ren politikari jarraipena eman.

Gainera, Gobernuak prestatzen ari den erreforma fiskalak diru bilketan 30 milioi euro gehiago suposatuko duela aurreratu du (Gobernuaren gastuaren %1 baino gutxiago). Diru bilketan horren eragin txikia duen erreforma batekin ezin da aldaketa sozialaz hitz egin inola ere, erreforma honekin ez da azken urteetan izandako erreforma fiskalekin galdutako dirua berreskuratu ere egiten.

ELAk aldaketa sozialaren alde egiten jarraitzen du, eta ezinbestekoa jotzen du horretarako politika fiskalen eta aurrekontu politiken aldaketa. Beharrezkoa da zerga-politikaren eta aurrekontu politikaren justizian aurrera pausoak ematea, eta pertsona eta mugimendu sozial guztiak zentzu horretan indar egiten jarraitzeko lanean jarraituko dugu.

3. GIPUZKOAKO ALDUNDIA ENPRESARIOEN ZERBITZURA ETA LANGILE-KLASEAREN AURKA JARRI DA

Gipuzkoako Foru Aldundiak azken asteetan lotuta dauden hainbat ekimenen berri eman du:

1. Fortuna Handien gaineko Zerga aldatzeko proiektu bat erabaki du. Hau egiteko ez du inolako kontsulta sozialik egin. Bere helburu bakarra ondare handiek ordaintzen dituzten zergak jaitea da.
2. Halaber, Ogasun diputatuaren ahotik entzun dugu enpresei babes emango diela, bere esanetan "gure esku dauden tresna guztiekin". Hots, enpresei zergak areago jaiteko borondatea adierazi du. Haatik, ez du esaten Gipuzkoako enpresek sozietateen gaineko zergan aitortutako etekinen %14 besterik ez dutela ordaintzen (eta portzentaje hori %6raino jaisten da enpresa handien kasuan), eta iruzur fiskal handia dagoela zerga honetan. Ezkutatu egiten du ere zergak murrizteak ez duela

enpresen lehiakortasuna hobetzen.

3. Patronal eta enpresekin etengabeko harremana izatea erabaki du (sindikatuekin ez dago halakorik), baita esan ere lankidetzako publiko-pribatua sustatuko duela. Honek gogora dakar Gipuzkoa Aurrera dinamika, aurreko Aldundiak desegin zuena; esparru honetan arlo pribatuari aurrekontu publikoaren zati buruzko erabakitzeko ahalmena ematen zitzaion. Horrela pribatizazioa areagotu egin zen eta diru publikoa interes eta irabazi pribatuen zerbitzura jarri zuten.

Ondorioa argia da: Gipuzkoako Aldundia enpresarioen zerbitzura eta langile-klasearen aurka jartzea jarri da. Adegiko buruaren adierazpenak, gazteentzat eta Gipuzkoako gizarte guztiarentzat iraingarriak izan zirenak, horrelako testuinguru batean kokatu behar dira, izan ere, Aldundiak agerian utzi baitu enpresaburuei nahi duten guztia ematen jarraituko duela. Beraz, Gibelalde jauna publikoki esatera ausartu da ziurrenik pribatuan ere Aldundiko arduradunekin hitz egindakoa.

4. POBREZIA ETA PREKARITATEA GIZARTEAN ETA LAN MUNDUAN

Sarritan salatu dugu Hego Euskal Herriko biztanle gehienek egoera ez dela bat ere ona, eta joera okerrera dela. BPGa berriz ere hazten dabilen une honetan Araba, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoako BPG per capita 30.000 euroren baitan dago baina langabezia-mailak Europako batezbestekotik urrun jarraitzen du eta aberastasunaren banaketa gero eta ezberdinagoa da.

Horren adibide da HEHn pobrezia maila erlatiboa biztanleen %19,3tik gorakoa izatea (errentaren medianaren %60a baino gutxiago dutenak batzen dituen neurgailua delarik hau,

mediana biztanleria bitan zatitzen duen errenta maila da). Argitaratu diren azken datuek diotenez, HEHn ia 542.000 pertsona daude txiroturik: EAEn %18,5ekoa da pobrezia 2014an (ia 400.000 lagun) eta Nafarroan %22,3koa 2013n (142.000 pertsona).

Izatez, Angel Toña Eusko Jaurlaritzako Enplegu Sailburuak berak onartu du 1.000 eurotik beherako soldatak ez direla duinak eta bizi-proiektua duen bikote batentzako soldata 2.500 eurotik gorakoa izan beharko litzatekeela; honek agerian uzten du pobrezia erlatiboa zehazten duen errenta-mailak (850 euro ingurukoa) ez duela pobrezia egoeran dauden pertsona guztien errealitate prekarioa barneratzen, are latzagoa izan daitekeen errealitatea pertsona dependienteekin bizi den biztanlegoaren kasuan, besteak beste.

HEHn dagoen gizarte eta lan prekaritatearen beste adierazgarri bat gobernuak kanpoko hainbat erakundek egiten dituzten salaketak dira; Caritasek, sistemaren kontrako erradikaltzat hartu ezin daitekeen erakundeak, salatu berri du enpleguak ez dituela pertsonak pobreziatik urruntzen eta beraingana laguntza bila doazen pertsonen erdia baino gehiago langileren bat edo gehiago duen etxe batean bizi dela.

Horren ildora, Eusko Jaurlaritzak egindako Gizarte Ongizate eta Pobrezia Inkestak zehazten du 2014an EAEn zeuden pertsona txirotuen laurdena soldatapeko langileak zirela.

Azken Nobel sariduna den Angus Deatonen esan ohi duenez, austeritateak diru-sarrerak eta mozkinak murrizten ditu eta enpleguak suntsitu; eta oso kritikoa ez bada ere gai honen inguruan, austeritate programak ahulena babesteko egin behar direla dio.

Argiagoa da ospetsu eta Nobel sariduna -eta bat ere susmagarri ez- den Paul Krugman:

aberatsek soilik aberatsago izan nahi dute eta horretarako politika eta ekonomia beraien nahietara moldatzen dute, azken finean mundua gerra klasean murgilduta baitago, goiko klaseak gainerakoien kontra darabilen gerra.

5. ZERGAK ETA BARNE-ERAGIKETAK TRASNAZIONALETAN

Ideologia neoliberal eta globalizatzailea duen Lankidetzeta eta Ekonomia Garapenerako Erakundeak, gehienbat mendebaldeko estatus osaturik dagoena, nazioarteko zerga-sistemak dituen hainbat gabezia estaltzeko hamabost bat neurri iragarri ditu. LEGEren borondate erregulatuak ezohiko hau, nahiz eta guztiz eskasa izan, enpresa trasnazionalak zerga gutxiago ordaintzeko estatusen artean egiten dituzten mozkinen deslokalizazioak ekiditeko bideraturik dago.

Berez, trasnazionalak askatasun eta iluntasun osoz aritzen dira eta, kasu gehienetan, kontabilitate eraldatuekin mozkinak nahi bezala aitortzen dituzte zerga gutxien ordaintzeko xedez. Enpresa hauetan ohikoa da elkarte ugari izatea estatu ezberdinetan, paradisu fiskalak barne. Elkarte horiek erabilia, salerosketa eragiketarako egiten dituzte diru-sarrerak eta mozkinak estatu batetik bestera bideratzeko, berdin izanik non egiten den ekoizpena edota balio erantsi edo mozkinen sorrera; hainbatetan gertatu izan da ekoizpen zentro nagusienetan ez dutela mozkinak aitortu eta, aldiz, zergarik ez duten paradisu fiskaletako bulego fimiñoetan irabazi erraldoiak aitortzea.

Soilik mozkinen deslokalizazio honengatik, LEGE erakundeak 100.000 eta 240.000 milioi dolarreko galerak kalkulatu dituzte mundu mailako zerga-bilketan, sozietate zergaren %4 eta %10 bitarteko galera delarik hori. Batezbestez, munduko berrehun estatuetako bakoitzak 500 eta 1.200 milioi euro gehiago

bildu beharko lituzke trasnazionalen deslokalizazio horiek egingo ez balira; Hego Euskal Herri mailan 54,5 eta 136,5 milioi euro gehiago bilduko liriateke : Nafarroan 8,2 eta 20,5 milioi euro gehiago bilduko bailirateke eta EAEn 46,4 eta 115,9 milioi euro gehiago.

Gainera, deigarriak dira LEGE erakundeak egiten dituen salaketak: batetik, enpresa trasnazionalak ordaintzen duten sozietate zerga efektiboa beste enpresena baino 4 eta 8,5 puntu murriztagoa dela eta, bestetik, posible dela Europar Bastasunaren barnean %3tik beherako sozietate zerga ordaintzea. Zehaztu beharra dago kapitalen ihesa eta mozkinen deslokalizazioa errazten dituzten faktoreak erregulazio eta zigor falta, eta kontrol eta ikuskaritza gabeziak direla.

Guzti hau are kezagarriagoa da kontuan izanik enpresa trasnazionalak EAEko BPGaren %13 eta Nafarroako %40a baino gehiago sortzen dutela. Gainera, gogoratu beharra dago trasnazionalen kontularitza ekintza hauek enpleguaren murrizketa eta prekarizatzea asko merkatzen dutela; kontularitza faltsuaren bitartez arrazoi ekonomiko zein produktiboak argudiatu baitaitezke.

6. ESTATU ZORREN BERREGITURAKETA

Irailaren 10ean Nazio Batasuneko Batzar Nagusiak gehiengoz (136 aldeko boto, 6 aurka eta 41 abstentzio) Estatusen zorrak berregituratzeko jarraitu beharreko bederatzi printzioez ezartzen dituen ebazpena onartu zuen. Berregituratzea, zorra berrantolatzea edo murrizteari deritza.

Epe laburrean zorrak berregituratzeko zuzenbidezko oinarriak finkatzea da Nazio Batasunaren helburua, "funts putreen" estrategiari aurre eginez. Fondo hauek lege-hutsuneaz baliatuz, aurretik prezio baregarrian erositako zorrak estatuei auzi bidez eskatzen

dizkiete, interesak barne.

Ebazpenari aurkako botoa eman ziotenek, Estatu Batuak, Kanada, Alemania, Japonia, Israel eta Britainia Handia eta Europar estatuak, Grezia barne abstentzioarekin. Bi izan ziren erabaki hoi argudioak:

- Ebazpenak aintzat dituen printzipioek (inpartzialtasuna, gardentasuna, fede ona, trataera zuzena, inmunitate subiranoa, zilegitasuna, jasagarritasuna, gehiengoari errespetua, burujabetza) ez dute nazioarteko zuzenbidea adierazten.

- Nazio Batasuna baino Nazioarteko Diru Funtsa edo Pariseko Klub-a lirateke eskudunak.

Erakunde hauek hartzekodunen interesak, finantza erakundeen interesetara daudenak alegia, ordezkatzan dituzte, horregatik Nazio Batsunean gaia jorrazteko kontrako jarrera hori, bertan Estatu guztiak berdina dira eta boto bakarra baitute.

Egia da izan, orainarte egindako berregituratzeak hartzekodunen interesen arabera egin izan direla, berrantolaketa edo murrizketa emandako kasuetan beti zorpetutako estatuen herritarren aurkako neurriekin. Hegoalde herrialdeak eta Greziaren kasu.

Ebazpenari balioa kendu gabe, jarrai dezagun ikuskaritzen alde eginez, gobernuen burujabetza, autodeterminazio eta autodefentsa kontzeptuen seinale. Herri bat, hartzekodunen helburu denean, biztanleriaren bizi baldintzen kaltetan, Estatuak kontrako-neurriak erabili ditzake eta erabili behar ditu, neurri kaltegarriak gaitzetsi eta guztion aldeko naurri bateragarrien alde eginez, banketxeen kontrolaz, justizi fiskalaz, etab.ekin adibidez.

7. TTP-AREN ONDOREN TTIP-A?

TPP moduan (ingelerazko siglak) ezagutzen den Kooperazio Ekonomikoko Ozeano Bareaz bestaldeko akordioa, EEUUek bultzatuta, sekretuan negoziatutako eta pazifikoko 11 herrialde parte dituen merkataritza askeko ituna da. Zazpi urtez negoziazioan ibili ondore orain akordioa herrialde bakoitzeko parlamentuek berretsi beharko dute, hori bai osotasunean, inolako zuzenketarako aukerarik gabe.

Helburua argia da: gero eta merkataritza aske eta lehiakorragoa, orduan eta berrikuntza, hazkunde eta oparotasun gehiago. Hori bai, korporazioen irabaziak gainotzeko guztiaren gaintik, gizartea, ingurumena... gutxiengoaren ongizatearen gaintik inbertsoreen interesak daude, demokrazia, politika alde batera utzita. TPParen kasuan EEUUek Txina alde batera uzteko inetresa zuela esan bada ere, gogoratu beharra dago Txinak ere beste sinatzaileekin abdituel alde biko akordioak. Beraz, potentzi biek bere jokoa egiten dute, bata besteari begibistatik galdu gabe, aukera guztiak aprobetzatuz.

Argi dago TTIP-ak baduela eredu. Biek genetika eta estrategia berdina dute. Enplegua, jabetza intelektuala, sekotze publikoa, medikamentuak, elikagaiak,... kaltetuko lituzkete, ez dute gairik alde batera uzten. Horregatik, gelditzeko beharra. Edukiaz eta arriskuaz informatu beharra dago, nork bere egin beharreko erronka. Gaur asko dira akordio mota hauen aurka agertu direnak eta gero eta gehiago gara. Pasadan astean hiru milioi firma baino gehiago aurkeztu ziren europa mailan TTIParen aurka eta asko izan dira orainarte egindako mobilizazioak mundu mailan eta Euskal Herrian pasadan urriaren 10ean bezala.

8. ATE BIRAKARIAK, ORAINGOAN BARCINA

Yolanda Barcina DTS (Distribuidora de Televisión Digital) enpresako kontseiluko kide "independientea" da dagoeneko. Nafarroako lehendakaritza utzi eta egun gutxitara Telefonica-k hartu du bere baitan bere enpresa filialaren bidez, urtean 200.000 eurotako soldata jasoz.

Horrelako kasu guztietan esaten den bezala, bere meritua izan da kargu horretara iristea. Hori zalantzan jarri gabe, aipatzekoa da berak landutako arloarekin (nutrizio Katedraduna da Nafarroako Unibertsitate Publikoan) zerikusi gutxi duela ikus-entzunezko negoziak. Eta agian zerikusi gehiago izan lezakeela, adibidez, Cesar Alierta, Telefonica-ko presidentea Barcinaren bikotea den Manuel Pizarroren lagun mina izatea, zein PPko diputatua izan den, eta baita Telefonica-ko kontseilaria ere (eta Endesako presidente).

Agian zerikusia izan lezake, baita ere, Cesar Alierta bera (Barcina Telefonicarako fitxatu duena) La Caixako kontseilaria izatea, Barcina Caja Navarrako Kontrol Kontseiluko Arduraduna zenean Caja Navarra bera irentsi zuen bankuko kontseilaria alegia.

Era honetan, Barcina kargu politiko altua izan eta gero enpresa handi bateko kontseilaria izatera pasa den beste kasuetako batean bilakatu da. Hor daude Jose Maria Aznar (PPTik Endesara pasatakoa), Elena Salgado (PSOEtik Endesara), Felipe Gonzalez (PSOEtik Gas Naturalera), Angel Acebes (PPTik Iberdrolara), Josu Jon Imaz (PNVtik Petronorrera eta gero Repsolera), Rodrigo Rato (PPTik Telefonicara besteak beste), eta abar luze bat.

Honen atzean Gobernuetatik hartzen diren hainbat eta hainbat erabaki daude, enpresa guzti hauen mesedetan hartutako erabakiak

eta egindako "mesedeak". Ezin da beste inola ere ulertu enpresa handienetako kontseiluetako egoera endogamikoa, gehienetan politikatik datozen pertsonen artean banatutako horrenbeste kargu eta postu, ehunka gutxi batzuk denera, eta kaleko jende arruntarentzako eskuraezinak diren karguak.

9. PROPOSAMENA: ALTERNATIBEN HERRIA

Lanez eta ilusioz beteriko prestaketen ondoren, parte hartu dugun 150 erakundeok Alternatiben Herria ospatuko dugu urriaren 24 honetan Bilbon. Alternatiben jai honek dauden aukera eta ekimen ezberdinak erakutsi eta planteatuko ditu bizi garen errealitate hau hurbilagoa, justuagoa eta ekologikoagoa izan dadin.

Egun guztian zehar Areatzan, plaza Berrian, San Nikolasen, Erronda kaleko hainbat lokaletan, BilboRock-en eta beste leku batzuetan dauden karpa eta azpiegitura ezberdinetan hitzaldiak, musika, eztabaidak, azokak, tailerrak, ikusentzunezkoak, erakusketak, antzerkiak eta abar egongo dira: egun batez Bilbo munduko zentroa izango da, are zentroago!

Bertan denok egongo baikara: ekoizle artisauek eta bioekologikoak, aktibistak eta intelektualak, gobernuz kanpoko erakundeak, sindikatu kritikoak, irabazi-asmorik gabeko elkarteak, kooperatibak, kontsumo elkarteak... zure falta dugu!

Jaialdia goiz hasiko da, gauza asko baitaude egiteko: 10ak puntuan hasiko da sarrera ekitaldia, ekimen ugari dagoelarik jarraian. Aipagarria da 10:30etan egongo den eztabaida BilboRocken, ELA eta LABeko idazkari nagusiek "Hemen bizi eta lan. Bertan erabaki" jorratuko baitute, edo Cat Boyd eta David Fernandezek herrien subiranotasunaren inguruan egingo

du ten hausnarketa karpa Zentralean. Arratsaldean mahai sindikala egongo da 18:00etan auzo EKOnomiako karpan, prekaritateari alternatibak planteatuz. Zinemaforumean Naomi Kleinen azken dokumentala estreinatuko da, eta antzerki-ikuskizunen alorrean Las Kapritxosas eta Sokoleren emanaldiak nabarmentzen dira, beste askoren artean.

Guztira 17 leku baino gehiago egongo dira 40 ekintza ezberdin baino gehiagorako, 4 azoka eta karpa zein lokal ezberdinetan ehunetik gora partaide arituko dira eta guzti hori musika, ikuskizun, txosna eta jateko postuen baitan egingo da. Etor zaitez, ez ezazu galdu!